

Christa Bürger/ Peter Bürger

Agustín González Ruizen itzulpena

La desaparición del sujeto. Una historia de la subjetividad de Montaigne a Blanchot.

Madril : Akal, 2001

Subjektuen desagertzea

Lan hau subjektu modernoaren bilakaeraren historiari dihardu, Montaigne abiapuntutzat hartuta, R. Barthes-en eta M. Blanchot-en jomugaraino. Liburuak, atalez atal, subjektibitatearen ibilbidea jarraitzen du Europan zehar, XV. mendetik geroztik aurrera. Peter Bürger hainbat idazleren testuetara hurbiltzen da; Montaigne, Descartes, Pascal, Voltaire, Diderot, Rousseau, Baudelaire, Flaubert, Valéry, Bataille, Sartre, Blanchot eta Barthes dira liburu honen orrialdeetan subjektibitateari buruz hitz egiten duten pentsalariak.

Baina modernitatearen zutabe horietan tartekatuta, emakume batzuen ahotsak ere aurki ditzakegu, zehaztu gabeko subjektibitatearen arazoari aurre egin zioten emakumeenak, hain zuzen, ezin izan ziotenak zehaztasunik ezari ihes egin. Eta, hain zuzen ere, lan honen interesa atalek elkarren artean sortzen duten kontrasteetan datza. Christa Bürger-ek idatzitako ataletan, Sevigné Markesa, Henriette, Marie von Herbert, Bettine von Arnim, Marie-Sophie Leroyer eta Colette Peignot subjektibitatearen filosofiako izen handiekin mintzatzen dira, eta haien artean sortzen diren elkarrizketetan, emakume hauek behin eta berriro azpimarratzen dute filosofoek eraikitzen dituzten proiektuak gero eta urrunago geratzen zaizkiela, distantzia gero eta nabarmenago sentitzen dutela haiek proposaturiko planteamenduei dagokienez. Horrela, pentsalariak beren lanetan ezinezona ikertzen dutenean, *ennui* ospetsua, emakumeek, gutunen bitartez, beraien adostasuna adieraziko diete, baina (hala behintzat gertatzen da Christa Bürgerrek aukeratutako testuetan) emakumeek haratago doan zerbait azalduko dute beti, filosofoek egindako ezinezonaren deskribapenari plus bat gehituko diote, beraien ingurune konkretutik sortzen den zehaztu gabeko zerbait bilakatzen dena, erantzunik gabeko galdera erraldoia, erabateko zalantza, zentzu cartesiar zehatzenean.

La desaparición del sujeto lanaren irakurketaren ondoren planteatuta geratzen den galdera hau izan liteke: Montaignetik abiatuta eta Blanchoteraino luzatzen den subjektibitatearen historia, Sevigné Markesatik Colette Peignoterainoko

subjektibitatearen historia bera al da? Atalen arteko kontrasteek eta emakumeek egindako galderei pentsalariak emandako erantzun indargeek iragartzen dute ezin dela historia bera izan. Mendebaldeko subjektibitatearen historia, kontatu digutena, filosofiak idatzi duena, gizonezkoen subjektibitatearen historia da. Emakumezkoena haratago doan zeozer izan da beti, kanpoaldea, eta zentzu horretan, aukeratutako azken idazlea, Maurice Blanchot, saiatzen da kanpoko, bestea, ezezaguna pentsatzen, eta horrela pentsalariak (duela bi urte hil zena) ematen dio sarrera XXI. mendeari.

Horrek esan nahi al du XXI. mendea itxaropentsu ireki dela, pentsalari handienek, gizonezkoek zein emakumezkoek, kontutan hartuko dutela emakumezkoen subjektibitatea? Ez dakit bada, baina liburuaren izenburuak ederki adierazten du ibilbidea: pentsalariak emakumezkoen subjektibitatea kontuan hartzen hasten direnean, subjektua eta subjektibitatearen desagerpena aldarrikatzeke eta iragartzeko baino ez da.

Ana Arregi

Irudia: Gillian Wearing – Omenaldia Walworth Road-en aurpegia bendatuta ikusitako emakumeari, 1995.